

**PSE-EE.** Alderdi Ederrera bildutakoen artean Jesus Caldera, Roman Sudupe eta Javier Balza zeuden

## Elkarretaratzea egin dute hautetsi sozialistei elkartasuna azaltzeko

Patxi Lopezek «biolentoen aurkako herritarren iraultza» bultzatzeko prest dela azaldu zuen



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Roman Sudupe, Patxi Lopez, Manuel Huertas, Jesus Eiguren eta Ana Urtxuegia, besteak beste, atzo Donostian egindako elkarretaratzean.

Ekaitz Sirvent | **DONOSTIA**

PSE-EEK antolatuta, azkenaldian eraso dieten hautetsi sozialistei elkartasuna azaltzeko, ehunka lagun bildu ziren atzo arratsean Donostiako Alderdi Ederren, *Askatasuna* goiburua hartuta.

Elkarretaratzera bildutakoen artean, alderdi sozialistaren or-

dezkaritza zabala nabarmenduz. Pankartari eusten zeudenen artean, besteak beste, honako hauek zeuden: Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusia, Ana Urtxuegia Lasarte-Oriako alkatea, Jesus Caldera PSOEko zuzendaritza federaleko kidea, Javier Balza EAEko Herrizaingo sailburua, Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldun nagusia,

Marixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Biktimen Laguntzarako Zuzendaritzako arduraduna, Antton Karrera Ezker Batuko legebiltzarkidea, Roman Knörr Confebaskeko lehendakaria eta Karmelo Sainz de la Maza Eudeleko lehendakaria.

Elkarretartzeko lelo nagusiaz gain, bestelako orriak ere erakutsi zituzten parte-hartzaileek: «Mehatxatua nago. Ez naiz askea», «ETA ez» eta «Ez biolentziarik, ez xantiarik, ez jazarpelik. Askatasuna» zioten orriak erakutsi zituzten.

leek: «Mehatxatua nago. Ez naiz askea», «ETA ez» eta «Ez biolentziarik, ez xantiarik, ez jazarpelik. Askatasuna» zioten orriak erakutsi zituzten.

### Patxi Lopezek hitzak

Kontzentrazioaren ondorengo hitzaldian eta ekitaldiarekin amaitzeko, Patxi Lopezek hitza hartu eta bertan bildutakoei zu-

### ESANAK

#### PATXI LOPEZ

(PSEko idazkari nagusia)

«Alderdi sozialista biolentoen aurkako herritarren iraultza bultzatzeko prest da»

«Gizarteak erasoaren aurka erantzun beharra dauka, nahiz eta beldurratik anestesiaturik egon»

#### JESUS CALDERA

(PSOeko Espainiako Kongresuko bozeramailea)

«Onartezina da gutxiengo fanatiko batek guztion eremu demokratikoa amaitu nahi izatea»

zendu zitzaion. Patxi Lopezek elkarretaratzea «erasoari aurre egin behar zaiolako eta egoera honetara ez ohitzeko» deitu zutela esan zuen eta gizarteari zuzendu zitzaion «bere kargu publikoak bakarrik utz ez ditzan». ETARI, berriz, alderdi sozialista «biolentoen aurkako herritarren iraultza bultzatzeko prest» dagoela esan zion. «Demokraten batasuna ETAREkin amaitzeko tresnarik eraginkorra izanik, horretan tematuko da alderdi sozialista».

Bestalde, Espainiako Kongresuko PSOEko bozeramaile Jesus Calderak «ideiarik gabeko gutxiengo fanatiko batek guztion eremu demokratikoarekin amaitu nahi izatea onartezina» dela adierazi zuen.

**OMENALDIA.** Juan Joxe Ibarretxek parte hartu zuen

## 36ko gerlan Bidarten errefuxiatuak omendu dituzte

Nora Arbelbide | **BIDARTE**

Espainiako gerla zibilaren garaian Bidarten errefuxiatu zirenak zituzten omendu zituzten atzo astirian. Juan Joxe Ibarretxe, EAEko lehendakaria etorri zen herrira, garaiko denboretan bertan egon zirenak eta beren familiarekin batera.

Errefuxiatuen artean zendu eta Bidarteko hilerrian lurperatu zirenak orroitarazi zituzten hilerrietara hurbilduz. Zenduei hilobi berriak jarri dizkie Michel

Urbistondo saratarrak. Aitzinekoak kasik eroriak ziren.

Omenaldiarekin batera Jean Claude Larrondek *La Rosaieko ospitalea* liburua aurkeztu zuen. Bidarten aurkitzen den La Rosaie hotela gerla garaian ospitale bihurtu zuten. Hiru pizu gerla zibileko gudariarentzat atxiki zituzten. 1940, 823 gudari sendatu zituzten, 56 zendu zirelarik. 1940 bururatzear zela, alemanek ospitalea berengantatu zuten. Gaur egun luxozko egoitza bat bilakatua da.



BOB EDME

Juan Jose Ibarretxe, atzo, Bidarteko hilerrian.